

**2019KO APIRILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Apirila .

URTEA: Bi mila eta hemeretzi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA
MIREN ARANTXA ZUFIAURRE GOIKOETXEA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJICA
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN
JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

ANGEL REDONDO FERNANDEZ

Udal talde bati atxiki gabeko ziengotzia:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS

ETORRI GABEA:

EAJ-PNV udal taldekoak:

NEKANE ZALDUA ESNAOLA

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak ere, parte hartzen du. Baita ere, Aitziber Yurrebaso andreak bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2019ko otsailaren 28koa onartzeko proposamena.

2019ko otsailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko aldaketarik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK

a.- Kreditu aldaketa

Ezagutzera eman da Alkatearen ondorengo proposamena:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 1. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 1. Kreditu gehikuntzen bidez 341.654,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea.

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan “Lankidetz hitzarmena: S.C. Loinaz” kontusaila gehituz 41.655,00 euroz hornituta.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egungoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos

0220.227.231.00.07	Suteak aurreik. eta behar sozial. detek. zerb./ Serv. prev. incendios y detecc. nec. sociales	48.000,00	22.000,00	70.000,00
0390.227.163.00.01		980.904,96	245.180,00	1.226.084,96
0110.470.230.10.01	Kale garbiketa / Limpieza viaria	0,00	12.335,00	12.335,00
0110.421.431.40.01		5.539,00	5.484,00	11.023,00
0360.481.341.00.10	Goieki: arlo soziala /	0,00	41.655,00	41.655,00
0350.601.311.01.01	Goieki: área social	25.000,00	15.000,00	40.000,00
	Tolosako hiltegi mankomunatua			
	Lankidetzaz hitzar/Conv. Colab.: S.C. Loinaz			
	Gernika paseal. frontoi ing. komun publikoa/			
	Aseo público en frontón de Paseo Gernika			
GUZTIRA / TOTAL		1.059.443,96	341.654,00	1.401.097,96

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
870.01	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerak./ Remanente tesorería gastos generales	317.999,00
0110.431.342.20.01	Fundazioa: Kirolaren udal erakundea /Fundación Instituto municipal del deporte	23.655,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		341.654,00

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Konpromisoazko kredituen eranskinaren aldaketa

Ezagutzera eman da Alkatearen ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- Gizarte Zerbitzu sailak proposatzen du lizitazio prozesua martxan jartzea 4 urterako kontratatzeke 80 urtetik gorako pertsonen behar sozialak aurreikusi eta beraien etxeetan su detektagailuen instalaziorako.

2.- Zerbitzuari 2.019 ekitaldian emango zaio hasiera eta dagokion kreditu aldaketa egin da 2.019 ekitaldiko aurrekontuak urte horri dagokion ordainketa kreditua aurreikusita izateko, baina hasierako aurrekontuarekin onartutako Konpromisuzko Kredituen Eranskinean ez daude jasota, ordea, ondorengo ekitaldiei dagozkien kopuruak.

Hau guztia dela eta, Udaltzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:

2.020 urtea: 24.000,00 €

2.021 urtea: 25.000,00 €

2.022 urtea: 27.000,00 €

Bigarren.- 15 egun Jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da.”

URTE ANITZEKO GASTUAREN AZALPENA / IDENTIFICACION DEL GASTO PLURIANUAL					KREDITUAK / CREDITOS (€)						FINANTZAKETA / FINANCIACION (€)	
Izena/ Denominación	Onarp. data Fecha aprobac.	Kudeaketa epea / Plazo gestión		GUZTIRA / IMPORTE TOTAL			ORDAINKETAZKOAK / DE PAGO	KONPROMISOZKOAK DE COMPROMISO				
		Hasieraturtea / Año inicio	Amaieraturtea / Año final		2017	2018		2019	2020	2021	2022	Norbera-rena / Propia
Plan Orokorra/Plan General 50.642.151.00.01 Lankidetzatza / Conv.: B.K.L. 0260.481.341.00.02 Zaldizurreta 9-19 jabeakideak/copropietarios Beste zerb.: Gizarte premiak eta su detect.	2017-07-20	2017	2021	411.400,00	20.570,00	102.850,00	164.560,00	20.570,00	102.850,00	27.000,00	411.400,00	0,00
	2019-02-21	2019	2021	10.000,00			5.000,00	2.500,00	2.500,00		10.000,00	0,00
	2019-02-21	2019	2021	5.840,00			4.840,00	500,00 (484+IPC)	500,00 (484+IPC)		5.840,00	0,00
		2019	2022	146.000,00			70.000,00	24.000,00	25.000,00		146.000,00	

GUZTIRA / TOTAL				573.2 40,00	20.5 70,0 0	102.8 50,00	244.4 00,00	47.5 70,0 0	130.8 50,00	27.0 00,0 0	573.2 40,00	0,00

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK

a.- Tasak: 2019-2020 ikasturtean Euskaltegi eta Musika Eskola zerbitzuak emateko, tasak onartzeko proposamena.

Herritarrek batzordeak proposatuta, ondorengo tasak onartu dira, aho batez:

Ezagutzera eman da ondorengo proposamena, Udal Euskaltegiko tasei buruzkoa:

“GAIA: Beasaingo Udal Euskaltegian 2019-2020 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespina.

*Herritarren Batzordeak 2.019ko martxoaren 28an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du **UDAL EUSKALTEGIAK** 2019-2020 ikasturtean Beasaingo Udal Euskaltegiko irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasei buruz hartutako akordio-proposamena.*

Ondoren, eranskin zehazten dira Beasaingo Udal Euskaltegian 2019-2020 ikasturtean ikastaro desberdinei aplikatuko zaizkien tasak eta ordainketako baldintzak.

2019/2020 ikasturtean, orduko 1,29€ kobratuko da aurrez aurreko ikastaro orokorretan.

C2 mailako ikastaroetan, orduko 3,04€ kobratuko da.

Auto-ikaskuntza ikastaroetan, orduko 2,27€ kobratuko da.

AISA ikastaroetan kopuru finkoa kobratzen da, 34€, HABEk ezarritakoa.

Materiala urritik ekainera bitarteko ikastaroetan: 25,30€; lehenengo kuotarekin batera kobratuko da. Udako ikastaroan, 12,65€ izango da.

- *Ikasleek matrikula-kopurua hileko 8 kuotatan banatuta ordainduko dute, azarotik ekainera.*
- *Beasainen erroldatutako ikasle langabetuek ez dute matrikula ordainduko, aldez aurretik ezarritako baldintzak betez gero¹. Baldintza horiek bete ezean, matrikula kobratuko zaie².*

¹ Baldintzak hauek dira: 1. Asistentzia %90ekoa izatea (Justifikatu daitezkeen faltak LANBIDEK deitu izana edo medikuarengana joan izana) 2. Ikastaroa uzteko onar daitezkeen arrazoiak betetzea, penalizaziorik gabe.

² Ikastaroa lanpostua lortuz gero eta justifikatuz gero soilik utz daiteke. Ikastaroa justifikatu gabe utziz gero, kontu korrontetik matrikula osoa kobratuko da. Ikasleak lana lortuz gero, eta ikastaroan jarraitu nahi izanez gero, zati proportzionala kobratuko zaio, hiru hilabeteka kalkulatuta eta baremo honen arabera: Klase orduen %10 bada, ez da kobratuko, langabetutzat joko da. Klase orduen %25 bada, %25 kobratuko zaio. Klase orduen %50 bada, %50 kobratuko zaio. Klase orduen %75 bada, %75 kobratuko zaio eta klase orduen %100 bada, %100 kobratuko zaio.

- Urtarrileko deialdian matrikulatzen diren ikasleek bost kuotatan ordainduko dute matrikula, otsailetik ekainera, alegia.
- Udako ikastaroak:
 - ¹ Baldintzak hauek dira: 1. Asistentzia %90ekoa izatea (Justifikatu daitezkeen faltak LANBIDEK deitu izana edo medikuarengana joan izana) 2. Ikastaroa uzteko onar daitezkeen arrazoiak betetzea, penalizaziorik gabe.
 - ¹
 -
 - Ikastaroa lanpostua lortuz gero eta justifikatuz gero soilik utz daiteke. Ikastaroa justifikatu gabe utziz gero, kontu korrontetik matrikula osoa kobratuko da.
 - Ikasleak lana lortuz gero, eta ikastaroan jarraitu nahi izanez gero, zati proportzionala kobratuko zaio, hiru hilabeteka kalkulaturik eta baremo honen arabera: Klase orduen %10 bada, ez da kobratuko, langabetutzat joko da. Klase orduen %25 bada, %25 kobratuko zaio. Klase orduen %50 bada, %50 kobratuko zaio. Klase orduen %75 bada, %75 kobratuko zaio eta klase orduen %100 bada, %100 kobratuko zaio.

Udako ikastaroetan, ordainketa ikastaroaren lehenengo 7 egunetan egin beharko da.

Beasainen erroldatutako Ikasle langabetuek, kasu honetan ere, ez dute matrikula ordainduko, aldez aurretik ezarritako baldintzak betez gero. Baldintza horiek bete ezean, matrikula kobratuko zaie.

- Ikasturte amaierako beka jasotzeko eskubidea izango dute Beasainen erroldatuta dauden ikasleek eta diru-laguntza horiek emateko, diru-laguntzen araudian jasotakoa aplikatuko da.

Ikasleak HABEtik ere jaso dezake diru-laguntzarik. Horretarako, euskara mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

Ezagutzera eman da ondorengo proposamena, Musika Eskolako tasei buruzkoa:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2019-2020 ikasturtean aplikagarri izango diren tasen onespenera.

Herritarren Batzordeak 2019ko martxoaren 28an egindako bileran, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Udalbatzaren onespenerako aurkezten du **BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLAK** 2019-2020 ikasturtean irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasen akordio PROPOSAMENA:

AURREKARIAK:

-Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Kontserbatorioak Musika Eskola bilakatu zituenean, finantzazioa herenetan izatea planteatu zuen, beti ere Titulartasun publikoa duten Musika Eskolena, hau da, Udala, Jaurlaritza eta ikaslegoari dagozkion tasak, alde bakoitzak %33a.

-Ikaslegoari dagokion %33ra gerturatze eta mantentzearen, Loinatz Musika Eskolako Batzorde Errektoreak erabaki zuen: urtero uneko KPIa + puntu bat aplikatzea.

LEHENIK. -2019-2020 ikasturtean Beasaingo Loinatz Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasak, hobariak eta baldintzak hasiera batean onartzea:

2019-2020 IKASTURTEKO TASAK		
IKASGAIAK	PROPOSAMENA	
	IKASTURTEKO KOPURUA	Hilabeteroko kopurua
I. MAILA: Musika Tailerra	217,50 €	21,75 € hilabetea
I. MAILA: Hastapena	277,50 €	27,75 € hilabetea
II. MAILA: Instrumentua + Musika Lengoaia	737,50 €	73,75 € hilabetea
II. MAILA: Instrumentua / Akonpainamendua / Kantua	552,50 €	55,25 € hilabetea
II. MAILA: M. Lengoaia+Pandero / Kantu taldea	547,50 €	54,75 € hilabetea
II. MAILA: M. Lengoaia	277,50 €	27,75 € hilabetea
II. MAILA: Trikitixa	475,00 €	47,50 € hilabetea
II. MAILA: Panderoa	345,00 €	34,50 € hilabetea
III. MAILA: Instrumentua + Gai teorikoa	782,50 €	78,25 € hilabetea
III. MAILA: Instrumentua/Akonpainamendua/Kantua/Errefortzu Gaia	580,00 €	58,00 € hilabetea
III. MAILA: Trikitixa	500,00 €	50,00 € hilabetea
III. MAILA: Gai Teorikoak / Informatika	277,50 €	27,75 € hilabetea
IV. MAILA: Pop-Rock taldeak	61,50 €	6,15 € hilabetea
IV. MAILA: Abesbatza	61,50 €	6,15 € hilabetea
3. adineko Musika Tailerra	61,50 €	6,15 € hilabetea
Kantua taldean	255,00 €	25,50 € hilabetea
Piano Akonpainamendua (60´)	847,50 €	84,75 € hilabetea
Piano Akonpainamendua + Gai teorikoa	1020,00 €	102,00 € hilabetea
MATERIALA	15,00 €	Abenduan ordainketa bakarra
* bakarka 40´		
IZENEMATEA 2020-2021 ikasturterako		46,50 €

* HOBARIAK

-Familia partaide kopuruarengatik dirulaguntza:

1.partaideak: kuota osoak

2.partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

*BALDINTZAK

-Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

-Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabeteetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

BIGARREN. -Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 lanegunez egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARREN. -Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitarapenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

b.- Dirulaguntzak emateko oinarriak:

Herritarrak batzordeak proposatuta ondorengo oinarriak onartu dira aho batez:

- EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEKO

“Beasaingo Udalaren eskumenen artean dago “bere lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea” eta esparru honetan Beasaingo herritarren euskalduntzea sustatzen du.

1.- XEDEA

2019-2020 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

Bi dirulaguntza mota egongo dira, eta bata bestea baztertzen du:

a) Orokorrak:

Dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

*-A1, A2 eta B2 mailetako kastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %75.
C1 eta C2 ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.*

b) Espezifikak: baldintza ekonomikoen arabekoak.

- Hileko diru-sarrera garbiak Urteko Lanbidearteko Gutxieneako Soldata (LGS) bider 1,5 baino txikiagoak diren kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa HABEk homologatutako ikastaroaren matrikularen %80koa izango da.

2.- FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko Udalak kreditua dauka aurreikusita helburu horretarako sortutako 0230.480.335.30.01 kontu-sailean.

3.- ESKATZAILEAK

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete behar dituzte:

- a) 16 urtetik gora izatea, dirulaguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.*
- b) Beasainen erroldatuta egotea dirulaguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean.*

Azaroaren 17an onarturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak edo erakundeek ezingo dituzte jaso diru laguntza hauen onurak.

Norbanakoek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Beasaingo udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

4.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- a) Eskabidea behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.
- b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.
- c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea; horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

5.- ESKABIDEAK: AURKEZTEKO TOKIA, EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkezteko tokia eta modua: Eskaera orria eta dokumentazioa, nagusiki Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dira: <http://www.beasain.eus/bulego-birtuala>

Dena dela, eskaera orriak eta deialdian zehazten diren gainerako agiriak aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango dira iGunean.

Epea: Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du dirulaguntza eskabidea:

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartekoak) uztailean egin beharko du eskaera.
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartekoak) urrian egin beharko du eskaera.

Aurkeztu beharreko agiriak: Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Guztiek aurkeztu beharrekoak:

- a) Dirulaguntza eskatzeko inprimakia behar den bezala beteta. (I. eranskina)
- b) Helburu honetarako dirulaguntzak jasotzeari buruzko zinpeko aitortpena.
- c) Matrikula-ordainagiriaren fotokopia.
- d) Euskaltegiak egindako ebaluazio txostena, bertan jasoko dira ikastaroaren hasiera eta amaiera data, taldeak emandako ordu kopurua eta ikasleak hartutakoak (asistentzia), hasierako maila eta lortutako maila.
- e) NAren fotokopia
- f) Kontu korrante zenbakia (IBANa eta 20 zifra).

2.- Baldintza ekonomikoen arabera laguntza espezifiko eskatzen dutenen kasuan, eskatzailearen eta bizikidetz-unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da ondorengo dokumentuekin:

- a) Eskatzailearen eta bizikidetz-unitateko kide guztien NA fotokopiak.
- b) Bizikidetz-unitatea osatzen duten kide guztiek jasotako hileko diru-sarrerak garbieratuak (T.10, nominak, pentsio agiriak, etab.)
- c) Lanbideak luzatutako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada, jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edo prestaziorik jasotzen ez denarena.
- d) Ikasleen kasuan, ikasten ari direla egiaztatzen duen agiria.

Laguntzaren eskatzailea bakarrik bizi bada, bere diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan osotasunean. Elkarbizitza unitatea bi pertsonen osatzen badute, une bakoitzean dagoen kotizatu gabeko pentsioaren %75a deskontatuko da beren diru-sarreretatik. Hiru pertsona edo gehiago badira, 3.arena eta ondorengoarena, pertsona bakoitzeko kotizatu gabeko pentsioaren %50 deskontatuko da.

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, bizikidetzako unitatetzat jotzen da ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak; horretarako, kontuan hartuko dira biztanleen udal erroldako datuak.

Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako beka eskatzaileek, ordea, kide bakarreko bizikidetzako unitatetzat hartuko ditu Udalak. Era berean, gurasoekin bizi diren eskatzailearen anai-arrebak 30 urtetik gorakoak direnean, ez dira bizikidetzako unitateko kide konputagarritzat hartuko.

6.- DIRU LAGUNTZEN ORDAINKETA

Alkateak diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren egingo da ordainketa, ondoren zehazten diren epeetan:

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.

I ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

TITULARRA, INTERESATUA

Izena eta bi abizenak	NA	GENEROA ☐ Emakumea ☐ Gizona ☐ Bestiak
-----------------------	----	---

ORDEZKOA:

Izena eta bi abizenak	NA
-----------------------	----

JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO DATUAK

Kalea	Zk. Solairua	Aldea	P.K.	Herria	Lurraldea
e-posta			Telefono zk.		Sakelakoaren zk.
Kontu korrontearen zenbakia (IBAN eta 20 digitu)					

Harremanetarako hizkuntza	☐ EUSKARA	☐ ELEBIDUNA BILINGÜE
---------------------------	----------------------------------	--

ESKAERAREKIN BATERA HONAKO DOKUMENTU HAUEK AURKEZTEN DITUT

- ☐ Naren fotokopia.
- ☐ Matrikula-ordainagiriaren fotokopiak
- ☐ Euskarategiak egindako ebaluazio txostena, bertan jasoko dira ikastaroaren hasiera eta amaiera data, taldeak emandako ordu kopurua eta ikasleak hartutakoak, hasierako maila eta amaierako maila **DIRU-LAGUNTZA ESPEZIFIKOA JASOTZEKO:**
- ☐ Eskatzailearen eta elkarrekin bizi diren pertsonen unitateko gainerako partaideen Naren fotokopiak
- ☐ Elkarrekin bizi direnen unitatea osatzen duten partaide guztiek jasotako hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, Nominak, Pentsio-agiriak, etab.)
- ☐ Lanbidek luzatutako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edo prestaziorik jasotzen ez denarena.
- ☐ Ikasleen kasuan ikasten ari direnaren frogagiria.
- ☐ Bizikidetza agiria.

Behean izenpetzen duenak, dirulaguntza hauek eskatzen dituen persona / entitatearen ordezkari gisa,

- Bere erantzukizunpean adierazten du, betebeharrak fiskaletan eta gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.

BAI ☐ EZ ☐

- Espreski baimena ematen dio BEASAINGO UDALARI, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, idatzi honetan zehazten den DIRU-LAGUNTZA eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako helbururako, edozein erakunderen edo administrazio publikoren datu baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.

BAI ☐ EZ ☐

Behean izenpetzen duenak, ZIN EGITEN DU

-Ez duela inolako debekurik diru-laguntza publikorik jasotzeko.

-Ikasturtean egindako ikastaroetarako ondorengo diru-laguntzak jaso dituela.

Lan egiten duen enpresa edo erakundetik.....€

Besteren batetik.....€

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZTU DAITEKE:

iGunea
Loinazko San Martin Plaza azpia 1,
20200 Beasain

ORDUTEGIA

Aurrez aurre:

iGunean, astelehenetik ostiralera:

- *Ekainaren 1etik irailailaren 30era:*
08:00etatik 14:00tara.
- *Urriaren 1etik maiatzaren 31ra:*
07:30etatik 14:30tara.

Posta arruntaren bidez.

Telematikoki: www.beasain.eus

Datuen babesa

Jakinarazten dizugu, Datuak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatzen duenez, zure eskabide-orriaren bidez eskuratutako datu pertsonalak Erregistro Orokorra fitxategian jasoko direla eta fitxategiaren erantzulea Beasaingo udala dela. Fitxategiaren berri eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eta datuen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun neurri guzti-guztiak dauzka. Edozelan ere, eskabide-orria betezeak esan nahi du eskatzailea guzti honen jakitun dagoela eta onespina ematen duela bere datuak tratatzeko adierazitako helbururako, bai eta datuak lagatzeko ere goian pasotako helbururako. Era berean, gogorarazten dizugu emandako datuak atzetzea dezakezula, bai eta, egoki irizten badiozu, datuak zuzentzea, ezerezte eta aurka egitea ere, beti ere goian aipatutako Legeak xedatutakoa kontuan hartuta. Horretarako, eskaera bat bidali behar zaio, idatziz, Udalera Loinazko San Martin Plaza azpia 20200 Beasain helbidera, honako datuekin: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidera, eskatzen dena zehatz-mehatz adierazita, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Data / Fecha

Sinadura / Firma

- XXII IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT

“Lehena. Bekaren xedea

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXII. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA emateko oinarriak arautzen dira.

Bigarren. Bekaren diru kopurua

Bekaren diru kopurua 6.000,00 eurokoa da, eta Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak 2019ko martxoaren 13an sinatutako hitzarmenaren arabera, entitate hauek ordainduko dute:

- .- CAF enpresak: 4.000,00 €*
- .- Beasaingo Udalak: 1.000,00 € (Indarreko PFEZren kenketa egingo zaio)*
- .- Elkar argitaletxeak 1.000,00 €*

Hirugarrena. Ordainketa

Ordainketa modu honetan egingo da:

.- 3.000,00€, irabazle izendatu bezain laster (2.000,00€ CAFek, 500,00€ Udalak eta 500,00€ Elkarrek).

.- 3.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespenera emandakoan (2.000,00€ CAFek, 500,00€ Udalak eta 500,00€ Elkarrek), aldeztu aurretik zerga eta gizarte segurantzaren betebeharretan eguneratuta egotearen agiriak aurkeztuta.

Laugarrena. Oinarriak argitaratzea

Deialdi hau iragarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Beasaingo Udalaren webgunean eta eskualdeko zein lurraldeko komunikabideetan.

Bostgarrena. Aurkezteko epea eta lekua.

2019ko ekainaren 30a izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:

- .- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria bete(l. eranskina)
- .- On-line bidez, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.beasain.eus

Seigarrena. Eskararekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Beka eskararekin batera ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, liburuaren edukia(75 bat orrialde gutxienez), estiloa, etab.
- b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.
- c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia.

Zazpigarrena. Deialdian parte hartzeko baldintzak.

- a) 35 urte bete gabe izatea.
- b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.
- c) Aurreko edizioetako lgartza Beka sariaren titularra ez izatea.
- d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.
- e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.
- f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.

Zortzigarrena. Epaimahaiaren osaketa eta eginbeharrak.

Osaketa: Epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Igor Estankona, Garazi Kamio eta Ana Jaka idazleek

Egin beharreko lanak: jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien artean irabazlea zein den izendatu 2019ko irailaren 15a baino lehen.

Aurkeztutako lanek behar adinako kalitatez ez dutela iriziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

Bederatzigarrena. Proiektua saritzeko ekitaldia.

Epaimahaiak irabazlea izendatu eta Beasaingo Udalari jakinarazi ondoren, Beasaingo Udalak lgartza Literatur beka emateko ekitaldia antolatuko du eta irabazleari gehienez ere urtebeteko epea emango dio idazlana amaituta entregatzeko. Entregatutako idazlanak epaimahaiaren oniritzia jaso beharko du. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaiakoei jakinarazi beharko die aldatetaren berri eta haien onspena jaso beharko du.

Hamargarrena. Beka itzultzea.

Idazleak bere lana entregatuko ez balu, edo idazlan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoen aldean nabarmen kaxkarragoak balira, idazleak itzuli egin beharko du jasotako dirua.

Hamaikagarrena. Datuen babesa.

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.

gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEen baldin badu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrek hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...).

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legeko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze-egutegiarekin batera.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik zeharkako gastuentzat, gehienera %7a bideratu ahal izango da.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du diru-laguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte interesatuek.

6.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, maiatzaren 31a arte aurkeztu daitezke.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 7:30etik 14:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu

gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berekin batera jasotzen diren agiriak ere, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Proposamenak egin eta ebaztea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate arloak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta proposamena egingo dio Alkatetzari gaia ebatz dezan.

8.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 2 hilabeteko epean.

9.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, beranduenera ere, ebazpena emandako datatik zenbatutako 2 hilabeteko epean ordainduko da.

10.- Diru-laguntza zuritzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz, gastuen zerrenda xehatua dagozkion faktura edo agiri originalak sartuta, zeharkako gastuenak barne (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

2. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitorpena.

3. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo bestela adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

11.- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

ESKAERA ORRIA

Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren harrera-programa

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: _____

NA-zk.: _____

Ordezkatzen duen erakundearen izena:

Eskatutako diru-laguntza: _____ **euro**

Programa edo jardueraren kostua guztira: _____ **euro**

Gainerako Finantzabideak (erakundeak eta diru-laguntzak): _____

Jakinarazpenak jasotzeko:

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

E-maila: _____

Hizkuntza:

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz ere bai

Honekin batera doazen agiriak:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuta: -----

..---□

- Laguntzea eskatzen den proiektuaren txosten zehatza euskaraz, aurreikusitako sarrera eta gastuen aurrekontua eta ekintzak gauzatzeko egutegia

-----□

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria: -----

-----□

-Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulatuak adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizunezko aitortpena: -----

-----□

Espreski baimena ematen dio BEASAINGO UDALari, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, idatzi honetan zehazten den DIRU-LAGUNTZA eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako

helbururako, edozein erakunderen edo administrazio publikoren datu baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.

BAI ☐ EZ ☐

Diru-laguntza ordaintzeko banketxeko datuak, onartua den kasurako:

Kontuaren titularra: _____ NA-zk.: _____

Banketxea: _____ Bulegoa: _____
Kontu-zk.: _____

I.F.K.: _____

EGITASMOAREN DESKRIBAPEN LABURRA/

GKE: _____

Erakunde hartzailea: _____

Egitasmoa: _____

Egitasmoaren laburpena:

Talde hartzailea: _____

Onuradunak: _____

Diru-laguntzaren xedea:

Gauzatzeko data: _____

Beasain, 2019ko _____ ren _____ a

(Eskatzailearen sinadura eta zigilua)"

- EKINTZA GIZATIAARRENTZAKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

"1.- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrez daudenek dituzten beharren arabera gauzatzeko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkeztu diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legeko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.

Eskatzen eta onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbestetatutako langileen gastuentzat (bidaia, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du diru-laguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagirak aurkeztu beharko dituzte interesatuek.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, urriaren 31a arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta iGunean (Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan) aurkeztu beharko dira (7:30etik 14:30era bitartean, ekainetik irailera izan ezik, hil horietan harrera-ordutegia 8:00etatik 14:00etara izango baita) edota Herri

Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorraren 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Eskaerak irizpide hauek kontuan izanda ebatziko dira:

- *Larrialdiak edo hondamendiak eragindako kaltetuen kopurua*
- *Laguntza jasoko duten pertsona kopurua*
- *Premia-premiazko ekintzetarako (ura, janaria, jantzia eta etxebizitza)*

5.- Aurrekontua.

1 0220.481.230.20.01 kontusail espezifikoa jasotzen den irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko elkarte edo erakundeek aurkeztutako ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako diru-laguntzen zenbatekoa 24.315 eurokoa da.

6.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate arloak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan. Eskaerak aurkezten diren heinean ebatziko dira.

Beasaingo Udalak Gobernuz Kanpoko Erakundeak eskatutako diru-laguntza osoa ez ematea proposatuko balu, edo eta aurkeztutako proiektuan aldaketak egongo balira (proiektuaren exekuzioan, diru-sarreretan edo/eta gastuetan, e.a.) erakunde eskatzaileak aldaketa hauen berri eman beharko dio Beasaingo Udalari lehenbailehen eta proiektuaren eta aurrekontuaren birformulazioak aurkeztu beharko dizkio. Beasaingo Udalak proiektuaren aldaketa aztertu ondoren ebazpen berri bat eman ahalko du.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 2 hilabeteko epean.

8.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

9.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren froga-agiria. Froga-agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, proiektuaren izena eta proiektua aurrera eramango den herrialdearen izena azalduko dira.

2. Diru-laguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua lagunduko den proiektu osoarena izango da. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz aurkeztu beharko da, gastuen zerrenda xehatua eta dagozkion faktura originalak edo kopiak behar bezala legalizatuak (Beasaingo Udalak zigilatu ditzan).

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoan erabilerak justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (Emandako diru-laguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute), nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahikoa justifikazio dela ulertzen delako.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10- Egiaztatze epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

ESKAERA ORRIA

Larrialdietarako laguntza ekintza gizatiarretarako

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: _____

NA-zk.: _____

Ordezkatzen duen erakundearen izena: _____

Eskatutako diru-laguntza: _____ **euro**

Programa edo jardueraren kostua guztira: _____ **euro**

Gainerako Finantzabideak (erakundeak eta diru-laguntzak): _____

Jakinarazpenak jasotzeko:

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

E-maila: _____

Hizkuntza:

☐ Euskaraz

☐ Gaztelaniaz ere bai

Honekin batera doazen agiriak:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuta. -----☐
- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza euskaraz-----☐
- Erakunde eskatzailearen estatutuak -----☐
- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria. -----☐
- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko aaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

Espresti baimena ematen dio BEASAINGO UDALARI, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, idatzi honetan zehazten den DIRU-LAGUNTZA eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako helbururako, edozein erakunderen edo administrazio publikoren datu baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.

BAI ☐ EZ☐

Diru-laguntza ordaintzeko banketxeko datuak, onartua den kasurako:

Kontuaren titularra: _____ NA-zk.: _____

Banketxea: _____ Bulegoa: _____

Kontu-zk.: □□□□□□□□□□□□□□□□□□□□□□

I.F.K.: _____

EGITASMOAREN DESKRIBAPEN LABURRA

GKE: _____

Erakunde hartzailea: _____

Egitasmoa: _____

Egitasmoaren laburpena: : _____

Herrialdea: _____

Kokalekua: _____

Talde hartzailea: _____

Sektore hartzailea: _____

Onuradunak: : _____

Diru-laguntzaren xedea:

Gauzatzeko data: _____

Beasain, 2019ko _____ ren _____ a

(Eskatzailearen sinadura eta zigilua)”

- **BEASAINGO GAZTE LAGUNTAILEENTZAT BEKAK**

“1.- Xedea

Oinarri hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzakintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartzen dute garapeneko lankidetzakintzetan EAEko GGKE baten bidez gutxienez ere hilabete bateko denboraldia eginez eta horrek bide ematen die egoera tokian ezagutzeko.

2.- Aurrekontua

1 0220.481.230.20.01 kontu-sail espezifikoan jasotzen den Gazte laguntzaileentzat beka programarentzako diru-laguntzen zenbatekoa **12.968** eurokoa da.

3.- Diru-laguntza ematen zaien gastuak.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu, herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteteko zergak barne eta baita hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu-gastuak eta mantenuarenak ere.

Gehienera 3.000 €ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

4.- Eskatzaileak.

Programa honetan parte hartzeko, gazteek, eskaera egin aurretik gutxienez ere 18 urte beteak izan behar dituzte, gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen erroldatuta egon behar dute eta ezein GGKEekin ere lan-harremanik ez dute izan behar.

5.- Hautaketarako irizpideak.

Hautagaiak aukeratzeko orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera burutu behar den herrialdeko hizkuntza ezagutzea.
- b) Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide-prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateak ikasten ari direla ziurtatzea.
- c) Lan-egitasmoa.

- d) *Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea.*
- e) *Gobernuz Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea.*
- f) *Gazte-elkarte bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea.*
- g) *Euskararen ezagutza.*
- h) *Aurreko urteetan programa honetan parte hartu ez duten gazteek izango dute lehentasuna.*

6.-Eskaerak. Agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- *Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.*
- *NAREN fotokopia.*
- *Curriculum Vitae-a: Laneko bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana), agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan).*
- *Tokiko erakunderen baten abala (ekintza burutu behar den herrialdekoa) delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena eta lan-egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.*
- *Lan-egitasmoa: Txostenak, 1990. Urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. Artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du.*
- *Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza:*

-Bidaiaren gastua: (hegazkina+bisatua+zergak)

-Aseguru-polizaren gastuak

-Beste gastu batzuk: osasun-, ostatu- eta mantenu-gastuak eta sentiberatze-jarduera antolatze gastuak (argazkiak...)

- *Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du diru-laguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagirak aurkeztu beharko dituzte interesatuek.*

7.-Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, maiatzaren 31a arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 7:30etik 14:30era bitartean, Herri Administrazioen eta Administrazioko Jardunbide Orokorrari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Udalak egiaztatuko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta haiekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

8.-Proposamenak egin eta ebatzi.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate arloak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruzko iritziekin eta Alkatetzari aurkeztuko dio hark ebatz dezan.

Beharrezkoa ikusi ez gero, Batzordeak elkarrizketa bat egin diezaieke eskatzaileei aurkeztutako agiriez informazio gehiago biltzeko.

9.-Pertsona eskatzaileei jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie diru-laguntza eskatu duten pertsona guztiei, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 2 hilabeteko epean.

10.-Diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharko diren baldintzak.

Ebazpenean bertan jakinaraziko zaie onuradunei diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituztela:

- a) Esleitutako jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.*
- b) Jarduera egin behar den Herrialdean, ekintza bukatu arte irautea, gutxienez hilabete bat.*
- c) Proposatutako denboraldirako istripu eta gaixotasunen aseguru-poliza bat kontratatzea.*
- d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak betetzea.*
- e) Eskarmentu-aldia bukatu ondoren, bertan egindako lanaren memoria, irudiz osatua aurkeztea eskatzen da, eta baita ere Beasaingo Udalak sentiberatze-jardueraren bat antolatu ezker, 2019ko deialdian aurkeztutako beste gazte laguntzaileekin batera parte-hartzea. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.*
- f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izana ziurtatzea edo bereziki zer laguntza jaso diren adieraztea.*

11.-Ordaintzeko modua.

Ordainketa, gastuen faktura edo agiri originalak aurkeztutakoan egingo da. Agiri hauek diru-laguntza onartu den urteko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Hegazkina, bisatua eta aseguru-polizaren gastuak, bidaia egin aurretik ordaindu ahal izango dira, baina beste gastu guztiak, aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ondoren ordainduko dira.

12.-Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

ESKAERA ORRIA
Gazte laguntzaileentzako bekak

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: _____

NA-zk. _____

Helbidea:. _____

Telefonoa:. _____

E-maila: _____

Laguntzen duzun erakundearen izena:

Eskatutako diru-laguntza: _____ **euro**

Gainerako Finantzabideak: (erakundeak eta diru-laguntzak) _____

Diru-laguntza ordaintzeko banketxeko datuak, onartua den kasurako:

Kontuaren titularra: _____ **NA-zk.:** _____

Banketxea: _____ **Bulegoa:** _____

Kontu-zk.: □□□□□□□□□□□□□□□□

Honekin batera doazen agiriak:

- Eskajerari dagokion inprimaki ofiziala, eskatzaileak sinatuta

- NAREN fotokopia: -----□

- Curriculum Vitae-a: Laneko historia-txostena eta merituak egiaztatzeko agiriak: -----□

- Tokian tokiko erakundearen abala eta laneko plangintza: -----□

- Jarduera burutzeko egitea aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza: -----□

Espresti baimena ematen dio BEASAINGO UDALARI, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, idatzi honetan zehazten den DIRU-LAGUNTZA eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako helbururako, edozein erakunderen edo administrazio publikoren datu baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.

BAI □ **EZ** □

Beasain, 2019ko _____ ren _____ a

Beasain, ____ de _____ de 2019

(Eskatzailearen sinadura)
(Firma de la persona solicitante)

c.- Garabide

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakiak hartu dira:

- 2018RAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

“AURREKARIAK

1. *Beasaingo Udalak eta Garabide Elkarteak lau urteko lankidetza hitzarmena sinatu zuten 2017ko abenduaren 5ean, Plenoak hartutako erabakiaren arabera.*
2. *Hitzarmenean jasotzen da, hitzarmenaren iraupen aldian, urtero, Udal Osoko Bikurak onartuko dituela urte horretan diruz lagunduko dituen proiektuak. Eta horretarako Garabidek urte hasieran proiektu zehatzak aurkeztuko dituela Udalak ontzat eman ditzan.*
3. *Udalbatza Osoak 2018ko apirilaren 26an egindako bileran ondorengo proiektuak onartu zituen diruz laguntzako:*
 - a. *Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa IV, bi urteko iraupena duena eta guztira 530.0009,43 € kostua.*
 - b. *Yucatango Aditua, 20.095,38 € kostua duena.*
 - c. *Topesan kooperatibako Hizkuntza Plana diseinatu eta inplementatzen hastea, 24.198,48 €-ko kostua duena.*
4. *Aldi berean onartu zen horiek gauzatzeko 40.360 euroko diru-laguntza emango ziola Beasaingo Udalak.*
5. *Ordainketa bi zatitan egitea aurreikusten da hitzarmenean, urteko proiektuak onartzen direnean ordainduko da %80a eta gainerako %20a diru-laguntza zuritutakoan.*
6. *2019ko otsailaren 15an aurkeztu zituen Garabide Elkarteak 2018ko dirulaguntzaren zuriaketarako dokumentuak. Horiek aztertu eta Garabideri beharrezko argibideak eskatu ondoren, egiaztatu da diruz laguntzeko onartutako hiru proiektuetatik bat, hain zuzen ere, Topesan kooperatibako Hizkuntza Plana diseinatu eta inplementatzea, geldiarazi egin dela proiektua birplanteatu delako, eta ondorioz, ez dela gauzatu.*
7. *Plenoak diru-laguntza osotasunean onartu zuen hiru proiektuentzat eta ez zuenez zehaztu proiektu bakoitzaren diru-laguntza, Plenoari dagokio diru horren banaketa egitea onartutako proiektuekiko.*

Horren ondorioz, Herritarrak batzordeak proposatuta ondorengo

ERABAKI DA

Lehenik. 40.360,00 euroko kopurua proiektuek duten kostuaren arabera proportzionalki banatzea, jarraian adierazten den moduan:

Proiektua	Kostua	Dirulaguntza
<i>Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa</i>	530.009,43 <i>Bi urteko aurrekontua</i>	37.247,18 €
<i>Yukatango aditua</i>	20.095,38	1.412,23

<i>Topesan kooratibako Hizkuntza plana</i>	<i>24.198,48</i>	<i>1.700,58</i>
--	------------------	-----------------

Bigarren. *Topesan kooperatibako proiektua gauzatu ez denez, ez legokioke ordaintzea.*

Hirugarren. *5. Aurrekarian esan bezala, orain arte 32.288,00 euro (%80) ordaindu dira. Geratzen diren 8072,00 eurori (%20) 1.700,58 euro kentzea.*

Laugarren. *Beraz, Garabide Kultur Elkarteari 6.371,42 euro ordaintzea., dirulaguntzaren 2. ordainketari dagokiona.*

Bosgarren. *Hori guztia gastuaren zuriketaren kalterik gabe.*

Seigarren. *Erabaki honen berri kontuhartzaileari ematea ordainketa egin dezan.*

Zazpigarren. *Erabaki honen berri onuradunari ematea, beraren aurka aurkez daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”*

- 2019RAKO DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUAK

“AURREKARIAK

- Beasaingo Udalak eta Garabide Elkarteak lau urterako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2017ko abenduaren 5ean.

- Hitzarmenean jasotzen da, hitzarmenaren iraupen aldian, urtero, Udal Osoko Bilkurak onartuko dituela urte horretan diruz lagunduko dituen proiektuak. Eta horretarako, Garabidek urte hasieran proiektu zehatzak aurkeztuko dituela Udalak ontzat eman ditzan.

OINARRI JURIDIKOAK

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 3. Artikulua.

- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokor horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 2. Artikulua.

Herritarrak batzordeak proposatuta, ondorengo ERABAKI DA.

1. Beasaingo Udalak ondorengo proiektuak onartzen ditu 2019an diruz laguntzeko:

Hitzarmenaren baitan 2019an diruz lagunduko diren jardueren azalpena	Aurrekontua
Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa II <i>Erreferentziazko ikastaro honen bigarren edizioan 10 bat hizkuntza komunitateko 15 bat eragile indigenak urrian zehar euren jatorrizko hizkuntzak biziberritzeko estrategiak landu eta partekatuko dituzte euskararen esperientzia oinarritzat hartuta. Ikastaldiak hizkuntza komunitateetako lider, arduradun politiko eta gidariak biltzen ditu.</i>	16.070,00 euro
Yucatango II. Aditua <i>Lehen Aditu maiaren balorazio oso positiboaren ondoren eta handik ateratako 16 lan-lerro estrategikoak garatzeko xedez bigarren aditu maia planteatzen da.</i>	24.670,00 euro
* Hizkuntza komunitate desberdinetako Bidaideak <i>Bibaide izendapenarekin hizkuntza komunitate desberdinetan gauzatuko diren esku-hartze espezifikoak eta haiei dagozkien lankidetza-bidaia biltzen dira.</i>	24.670,00 euro

* Oharra: Hirugarren finantzazio aukera hau bigarrena 2020ra atzeratuz gero bakarrik aktibatuko da.

1. *Proiektu horiez gain Garabide Elkartek ondorengo ekimenak garatuko ditu Beasainen:*

- a. ***Ikastaldi trinkoko** bisita didaktikoa eta sentsibilizazio ekintza*
- b. ***Hizkuntza aniztasuna begi bistan** ekimena antolatu.*
- c. *Boluntario egunean parte hartzea.*
- d. *Hezkuntza: ikastetxeetan proiektzioak eta solasaldia.*

2. *Horiek egiteagatik 40.530 euro ordainduko dizkio Beasaingo Udalak Garabide Elkarteari. 32.424,00 euro proiektuak ontzat ematen direnean, eta gainerako 8.106,00 euroak diru-laguntza zuritutakoan.*

3. *Diru-laguntza zuritzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:*

- *Diruz laguntzeko onartu diren proiektuen memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu diren eta zer emaitza izan den adierazi behar dira.*
- *Proiektu horietan izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.*

Diru-laguntzak ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzan eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari aurkeztutako ordainketa agiri guztien %10a aurkezteko eskatuko zaio.

Proiektuak onartzeko akordioan bertan adieraziko da zenbatekoa den proiektu bakoitzeko onartzen diren zeharkako gastu edo gastu orokorrak (zuritu beharrik ez dutenak). Portzentaje horrek inolaz ere ez du gaingidutako proiektuaren kostuaren %10a.

- *Diruz lagundutako proiektuak finantzatu dituzten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.*

4. *Zuriketa egiteko azken eguna 2020ko apirilaren 30a izango da.”*

d.- Gizarte larrialdietarako laguntzak emateko irizpideak.

Herritarrek batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“2019ko Aurrekontua: 88.422 €

0. **BALDINTZA OROKORRAK**

- *%15eko minorazioa aplikatuko da GLLetako kontzeptu bakoitzeko dagokion kopuruari*
- *Lehentasunezko kontzeptuak honako hauek izango dira:*
 - *Alokairua.*
 - *Hipoteka.*
 - *Energia*
 - *Etxeko mantenua*
 - *Oinarrizko premiak: fardelak eta amatasuneko haur-esnea.*
- *Gainontzeko gastuei aurre egiteko, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuko programetan atendituta dauden pertsonen lehentasuna emango zaie.*
- *GLLetako betebeharrak edo /eta ekintzetarako konpromisoren bat betetzen ez bada, laguntza eten egingo da gutxienez hilabete 1 eta GLLko laguntzari ez zaio alta emango, etenaren arrazoiak*

desagertu arte. Ondorengo ez betetze bakoitzeko, laguntzak gutxienez 3 hilabeteko etenaldia izango du.

- Urtean zehar etenaldi bat baino gehiago ematen bada, hau gutxienez hiru hilabetez ezarriko da falta bakoitzeko.
- Laguntza eten egingo da erabiltzailea/familia ez bada aurkezten 2 jarraieko hitzorduetara justifikaziorik gabe (ontzat hartuko diren justifikanteak izango dira: mediku justifikanteak, erakunde ofizial baten justifikanteak ,....)
- Bi ibilgailu edo gehiagoko jabeen kasutan, ez da GLLrik tramitatuko; eskatzen bada ukatu egingo da. Laguntzen onuraduna izanik egoera hori ematen bada, laguntza eteteko arrazoia izango da (salbuespenak baloratuko dira).
- Dokumentazio faltsua aurkezten baldin badu onuradunak/familia, ukatu/etengo da diru-laguntza eta ezin izango da alta eskatu edo diru-laguntza berri bat eskatu 6 hilabeteko epean (eskaeraren data kontutan hartuta).
- Onuradunek udalerritik kanpo ateratzeko gehienez hilabete bat edukiko dute urtean zehar. Epe hori baino gehiago ateratzen bada, diru-laguntza etengo zaio , itzultzean baloratuko da. Joan aurretik, aurreko egunean ongizatera etorri beharko dira dokumentu bat sinatzera, eta bueltatzerakoan, berriz dokumentu bat sinatu beharko dute. Horrela egin ezean, eten egingo da diru-laguntza.
- Erabiltzailea/familia bere ohiko etxearen donazioa egiten baldin badu, etxearen balio katastrala kontutan hartuko zaio “diru-sarrera atipiko” modura.
- GLLetako betebeharrak eta ekintzetarako konpromisoak bete beharko dituzte, GLLko eskaera egiten den momentutik.
- GLLetako onuradunek ezingo dute bere diru-sarrerak erabili bere familia unitatetik kanpoko pertsonen laguntzeko.
- Pertsona batek oinarritzko errenta jasotzen baldin badu 2 urtetan UECI berezi bat bezala, bere emaztea/senarra bere herrialdean egonda, eta denbora hori igaro eta gero emaztea/senarra bere herrialdetik ekartzen ez baldin badu eta oinarritzko errenta ukatzen baldin badiote arrazoi horrengatik, ezingo ditu GLLak eskatu.
- Herrialdeko ondasunen agiriak 2 urteko balioa izango du, beraz 2 urtez behin eskatuko da.
- Salbuespen gisa eta gehienez ere 2 urtetan onartu ahal izango dira GLLak, Etxebideko etxe batean bizi eta beste bat jabetzan duten pertsona/familiei. Kasu hauetan horrela jokatu da:
 - Jabetzan duena alokatzen badu: lortutako errenta diru-sarrera modura kontutan hartuko da.
 - Jabetzakoa lagatzen badu, bere eskubide ekonomikoak hobetzen ez dituen laguntza ukatu egingo zaio.
 - Jabetzakoa donatzen badu, nahiz eta usufruktua mantendu, diru-sarrera atipiko modura kontutan hartuko da.
 - Jabetzakoa salduko balu, diru-sarrera atipiko modura kontutan hartuko da, beti ere ohiko etxebizitza erosteko inbertitzen ez badu.
- KGPko alokairurako laguntza 525 eurokoa diru-sarrera bezala kontabilizatuko da (E.J.ren esanetan) .
- Pupilo bat izatekotan, pupilajetik lortutakoa diru-sarrera bezala kontutan edukiko da.
- 2019ko GLLtako gastuen agiriak aurkezteko epea 2020-01-31 izango da genienez ere.
- Kasu guztietan salbuespenak baloratuko dira.
- Baldintza orokor hauek familiako kide guztiak bete behar dituzte

1. ALOKAIRU GASTUAK

- Alokairu babestuko etxebizitzak direnean, edo BO Etxebizitzak, edo Udal titulartasunekoak, ez dira GLLak onartuko alokairu kontzepturako.
- Alogera kontzeptuko pertsona onuradun batek etxebizitza alokatuta baldin badauka eta subarriando kontratua egiten badiu beste pertsona bati, alokairu prezioetik deskontatuko zaio subarriandotik jasotzen duen kantitatea.

2. ETXEBIZITZA EROSTEKO ESKATUTAKO KREDITUEN INTERES ETA AMORTIZAZIOEK ERAGINDAKO GASTUAK (HIPOTEKA)

- Kreditua ohizko etxebizitza ordaintzeko izan behar du. Salerosketa-eskriurak eta kredituari dagokion dokumentazioa eskatuko da.
- Dekretuaren arabera, gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak sartzen dira soilik. Salbuespenak baloratuko dira (banatzeko prozesuetan, tratu txarreko kasuetan, herentzia konpartituak...).
- BO etxebizitzak baldin badira, GLLak ez dira onartuko kontzeptu honetarako.

2. ENERGIA GASTUAK

- Energia gastu gisa kontutan hartuko dira: elektrizitatea, gasolioa, egurra, ikatza eta gasa (ur beroa barne).

4. ETXE TRESNA ELEKTRIKOEN ETA ALTZARIEN GASTUAK

- Laguntza hauek tramitatzeke bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira, eta beharra gizarte langileari azaldu beharko zaio aurretik. Bi irizpide hauek betetzen ez baldin badira ez da onartuko GLLrik.
- Alokairuan dauden onuradunei, onartuko zaizkio GLLak kontzeptu honengatik, alokairu kontratuan jartzen ez baldin badu etxeko jabea dagokiola kontzeptu hauei aurre egitea.
- Gastu hauek urte bukaeran baloratuko dira, aurrekontuaren arabera.
- Kontzeptu honetan gehienez 500 euro onartuko dira.
- Kontutan hartuko diren etxetresnak honakoak dira:
 - o Garbigailua gehienez 300 E.
 - o Hozkailua gehienez 400 E.
 - o Erauzgailua 100 E.
 - o Labea 250 E.
 - o Plaka 150 E.
 - o Mikrouhina: 50 E. (Salbuespen bezala)

5. KONPONKETAK ETA OINARRIZKO INSTALAZIOEN GASTUAK

- Etxebide subentzioaren ebazpena dagoenean GLLak onartu daitezke, subentzioaren kopurua GLLetatik deskontatuz.
- Kontzeptu honetan sartzen diren etxeko-tresnen konponketak, aurretik erosteko sartu ditugun etxeko-tresnak sartzen dira.

6. ETXEBIZITZAREN ERABILERA ETA MANTENTZEKO GASTUAK

- Mantenu gastu gisa kontutan hartuko dira: OHZ, komunitateko gastuak eta etxeko aseguruak.

6. OINARRIZKO PREMIEN GASTUAK

- Lehenetsuna duten kontzeptuak:
 - Kurtso eta formakuntzetarako garraio gastuak.
 - o Beharrezkoa izango da MUGI txartela izatea. (Salbuespenak baloratuko dira)
 - o Laguntza hau emango da soilik garraio publikoaren erabilpenerako.
 - o Formakuntza eta kurtsoetara joateko erabilitako garraioaren mugimenduak erakutsi beharko dira bidaiak justifikatzeko.
 - o Gehienez onartuko dira 60 € hilero. (Salbuespenak baloratuko dira egoeraren arabera)
 - o Kurtsoaren inguruko informazioa eskatuko da: ordutegia, datak, eduki orokorra...
- Sistema publikoek estaltze ez dituzten oinarrizko beharrei dagozkien gastuei erantzuteko GLLak tramitatu ahaliko dira, (esate baterako, jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun arreta: dentista, betaurrekoak, botikak ...), betiere dagokion teknikariaren balorazioaren ondoren.
- Gastu hauek urte bukaeran baloratuko dira, aurrekontuaren arabera.

- *Laguntza hauek tramitatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira, eta beharra gizarte langileari azaldu beharko zaio aurretik. Bi irizpide hauek betetzen ez baldin badira ez da onartuko GLLrik.*

- *Dentista:*

- o *Ez dira sartzen hortzak ateratzeak eragindako gastuak, ezta panoramikak ere, ezta PADI programatik sartzen diren gastuak ere.*
- o *Osakidetzako dentistaren txostena eskatuko da.*

- *Jantzi premiak*

- o *Arropa eta oinetakoak erosteko GLLak baloratuko dira.*

7. AURRETIAZ EGINDAKO ZORPETZE-GASTUAK

- *Familiei zorrei aurre egiteko diru-laguntza emango zaie, aurreko urteetan egindakoak edota eskaera egin aurrekoak badira; gehienez 3.000 eurokoa izango da UC (elkarbizitza unitate) bat baldin bada eta 1500 eurokoa bi UC baldin badira. Kontzeptu hau soilik onartuko da salbuespeneko kasuetan.*

8. JUSTIFIKAZIOAK

- *Hilero 20 eta 23 epeko egunetan aurkeztu beharko dira GLLko fakturak."*

e.- Hitzarmenak

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKOA. MENDEKOTASUN PRESATZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINTZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA.

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo proposamena onartu da:

" I. Mendekotasun prestazioen titularrak jasotako zainketen kalitatearen aldian aldiko jarraipenak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatzea proposaturiko hitzarmenaren edukia aztertutik.

- II. *Kontutan edukirik, Gipuzkoan mendekotasun prestazioen inguruan indarrean dagoen araudiak ezartzen duela Foru Aldundiak udalen bitartez egingo dituela jarraipen horiek, beti ere udalen ordezkariarekin nahikoa izango den finantzaketa aurretik adostuta.*

Ondorengo erabaki da jarraieko arautegia kontutan edukirik:

- *Abenduak 14ko 39/2006 Legea*
- *24/2017 Foru Dekretua abenduaren 12koa*

Lehenik: Ondorengo hitzarmeneko baldintzak onartzea, bertan bi alderdien betebeharrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Beasaingo Udalarari egiten dizkion ekarpenak ezartzen dira, lehen aipatutako mendekotasuneko prestazio ekonomikoen hartzaile diren titullarrek jasotzeko zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko.

Bigarren: Hitzarmena indarrean egongo da 2019-01-01etik 2019-12-31arte. Epea amaitzean besterik gabe luzatutzat joko da urte natural batez, betiere foru erakundeaen aldetik nahikoa den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako. Hala ere, indarraldia luzapena barne 8 urtetakoa izango da gehienez.

Hirugarren: Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko."

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKOA, EGUNEKO ZENTROA FINANTZATZEKO

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo proposamena onartu da:

“ I.- 2017ko urtarrilaren 24ko datarekin Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gizarte Politikako Departamentuaren bidez, eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzara arautzeko kontratu-programa sinatu zen, mendekotasun-egoerek eragindako beharrezaneia aurrea hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko, zehazki mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroa.

Kontratu-Programa honen indarraldia urte betekoa zen eta urte beteko luzapeneko aukerarekin.

Kontratu-Programa honen indarraldia amaituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu berdinerako hitzarmen berri bat sinatzea proposatzen du.

II. Mendekotasun-egoerek eragindako beharrezaneia aurrea hartu eta erantzuteko zerbitzua eskaintzeko (Loinatz eguneko zentroa) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak sinatzea proposaturiko hitzarmenaren edukia aztertutik.

III. Kontutan edukirik, Beasaingo Udalak kudeatzen duela Loinatz eguneko zentroa, nahiz eta gizarte zerbitzuen arloko eskumenen banaketaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundiari egitea dagokio.

Ondorengoa erabaki da jarraieko arautegia kontutan edukirik:

- Abenduak 5eko 12/2008 legea
- Urriaren 6ko 185/2015 dekretua

Lehenik: Ondorengo hitzarmeneko baldintzak onartzea, bertan bi alderdien betebeharrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Beasaingo Udalari egiten dizkion ekarpenak ezartzen dira, lehen aipatutako zerbitzua emateagatik.

Bigarren: Kontratu-programa indarrean egongo da 2019-01-01etik 2019-12-31arte. Epea amaitzean besterik gabe luzatutzat joko da urte natural batez, betiere foru erakundearen aldetik nahikoa den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako. Hala ere, indarraldia luzapena barne 4 urtetakoa izango da gehienez.

Hirugarren: Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.”

5.- MOZIOA. Alkateak aurkezten duen mozioa lapurtutako haurrei buruz.

Alkatea jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

“Zenbat kasu ari diren agertzen gure herri eta eskualdean, trama gaizto honen eraginaz, SOS HAUR LAPURTUAK elkarteak / SOS BEBES ROBADOS-eko partaide eta biktimak direnen, denuntziak daude, jaio berrien desagertzea dela medio gaur arte eta suposatzen denez zegoen amei kendutakoak diruaren truke izanik .

Egoera hauek, gure erkidegoko ospitaletan gertatzen dira 50. hamarkadatik 80era. Eta zailtasunak aurkitzen ari denez elkarte hau ospitaletan eta zenbait erresidentzian, behar duen informazioa eta historia klinikoak jasotzeko, bai amei eta haurrei dagokienari buruz ikusita, SOS HAUR LAPURTUAK elkarteak / SOS BEBES ROBADOS. Administrazio honen laguntza eskatzen dio, Gipuzkoako Diputazio Foralari eta Eusako Jaurlaritzari, inplikaturik dauden Ospitale eta Erresidentziako zuzendaritzaren bidez, erraztu dezaten bideratzea, familiak eskatzen dituzten beraien historial medikuen dokumentazioak.

Gipuzkoan gertatzen dena, estatuan gertatzen denarekin parekatzen da. Amei, erditze egun batzuk pasata gero, esaten zitzaion haurra hil zela. Naiz eta tematiak izan beraien jaio berriak ikusteko eskarian, ez zuten lortu, askori kutxa prezintatuak ematen zizkietelako eta beste batzuk esku hutsik joaten zirelako; haur batzuk ez dira agertzen lurperatuak ere kanpo santuko erregistroetan, historia klinikoak ez dira agertzen edo irregulartasunez gezurrezko zehaztasunez beteak daude, parafinazko

blokeak nekropsiatik jasotakoak agertzen ez direnak hildako agirietan, jaio berrien heriotzaren ordua eta arazoa zein den agertzen ez dutenak. Behin eta berriz errepikatzen diren izugarrikeriak eta familiak behar.ezkoa dutena argitzea, jakiteko behingoz non dauden beraien seme/alabak edo anai/arrebak. Hau horrela izanik Beasaingo Udaletxeak onartzen du jarraian agertzen den MOZIOA :

1. AGINDU DIPUTAZIOARI ETA EUSKO JAURLARITZARI KOLABORATU DEZATEN HAUR LAPURTUAK / SOS BEBES ROBADOS elkartearekin, ERKIOEGOKO HOSPITALE ETA ERRESIDENTZIATAN BEHAR OUTEN INFORMAZIOA JASOTZEN.

2. AGINDU ERKIOEGOKO HOSPITALETAKO ZUZENDARI ETA SOS HAU LAPURTUAK /SOS BEBES ROBADOS elkarteak ERREKERITUTAKO EDOZEIN LEKUTAKOEI, HARRERA ONAZ TRATATZEA ETA BEHAR DUTEN OSPITALEKO INFORMEAK JASOTZEA AHAL IZATEA.

3. AGINDU KOMUNIKATU PUBLIKO ETA PRIBATUEI, ZABALTZERA ETA EZAGUTZERA EMAN ZEZATEN DENUNTZIA HAUEK; KASU HAUEK SOLUZIONATZEKO PROGRAMA BEREZI BATETAN.

4. AGINDU ERREGISTRO ZIBILEI AGER DITZATEN OESAGERTUTAKO ABORTO LEGAJOAK.

Lehenengo. Udaletxeak aurkeztutako mozioa, Goierriko haur lapurtuetako arazoak ukitutakoen defentsan, onartu.

Bigarren. Mozioa biddali esandako Erakundeetako agintariei.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Angel Redondo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeko zinegotziak ondorengo adierazi du: “siempre que sea respetando las leyes, procediminetos, protocolos, acceso a la información sanitaria, protección de datos etc, votaremos a favor.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da mozioa.

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 30erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 30erarte emandako Ebazpenak.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak hogeita bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.